



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **TXOSTENA, BIDAIA-AGENTZIEI BURUZKO DEKRETUA BIGARREN ALDIZ ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA**

**Espedientea: LEA/AVC, 412. zk. NORM-2020**

### **Aurkibidea:**

I. TXOSTENAREN XEDEA.....	1
II. ONDORIOA .....	2

### **Osoko bilkura.**

Alba Urresola Clavero, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea  
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea  
Ainara Herce San Martin, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean LEK) bilera egin du 2020ko otsailaren 28an, arestian zehaztu diren kideekin, eta, bertan, Bidaia-agentziei buruzko dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari buruzko txostena eman du.

### **I. TXOSTENAREN XEDEA**

2. 2020ko otsailaren 5ean jaso zen, LEA/AVCren erregistroan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eskaera, Bidaia-agentziei buruzko dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatuz. Eusko Jaurlaritzaren espedienteen izapidetze elektronikorako gunearen (Tramitagune) bitartez bidali zitzaion eskaera hori LEA/AVCren.

3. Eta txosten hau egin da, hain zuzen, zehatzekoak ez diren ekintzen bidez merkatuetan lehia eraginkorra bultzatzeari lotuta legeak erakunde honi ematen dion eskumenaz baliatuz. Arau-laguntzaren esparruan, izan ere, honako hau ezartzen da LEA/AVCren Legearen 3.5 artikulua: «(...) *Halaber, Lehiaren Euskal Agintaritzak emango du irizpena, modu ez loteslean, lehiari lotuta dauden arau-proiektuen gainean*». Ikuspegi hori hartu da kontuan txosten hau egiteko.



4. Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretua berri nahi da<sup>1</sup>, proiektuaren zioen azalpenean jaso bezala, Espainiako ordenamendu juridikora transponitu behar delako 2015/2302<sup>2</sup> Zuzentaraua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2015eko azaroaren 25ekoa, bidaia konbinatuei eta lotutako bidaia-zerbitzuei buruzkoa: «*Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezartzen duen doktrina ekarri behar da; haren interpretazioaren arabera, bidaia-agentziek nahitaez eskaintzen duten bermea eraginkorra eta mugarik gabekoa izan behar da, eta aurrez eman diren funts guztiak itzuli behar ditu, mugarik gabe, gehiegizko izapiderik gabe eta doan*». Arau hori barruko zuzenbidera transponituko da Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina aldatzen duen <sup>3</sup>abenduaren 21eko 23/2018 Errege Lege-dekretuaren bidez. Testu hori azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen.<sup>4</sup>

5. Azkenik, 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak, 164.1 eta 167.1 artikuluen bidez, autonomia-erkidegoetako agintari eskudunei esku hartzeko eskatzen die, kaudimengabeziagatik finantza-bermeak eratzeko bidaia konbinatuetan eta bidaia konbinatuen zerbitzuetan, eta 81/2012 Dekretuaren 6. artikuluan («Fidantza») idazketa aldatzen du («Kaudimengabezien aurkako bermeak bidaia konbinatuetan»). Halaber, 170. artikulua gai horri lotutako araudia garatzeko eskatzen du, legeria berezia aintzat hartuta arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezarrita. Hori dela eta, aztergai dugun aldaketa eta gero (Hirugarren Xedapen Gehigarria) Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legean aurreikusitako arau-hausteen eta zehapenen araubidera igortzen da.<sup>5</sup>). Aldi iragankorari dagokionez, proiektuak hirugarren xedapen iragankor bat du («Bermeak dekretu honetara egokitzeko araubidea»), eta sei hilabeteko epea ezartzen du, dekretua indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, agentziek dekretu horren 6. artikuluan ezarritakora egokitu dezaten beren bermea.

## II. ONDORIOA

6. LEA/AVCk aldeko txostena egin dio Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egin duen Bidaia-agentziei buruzko dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari, *ex lege* betebeharra delako eta ez duelako eraginik lehia askean.

<sup>1</sup>[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/legislacion\\_turistica/es\\_def/adjuntos/201202541\\_vig\\_entea.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/legislacion_turistica/es_def/adjuntos/201202541_vig_entea.pdf)

<sup>2</sup> <https://www.boe.es/doue/2015/326/L00001-00033.pdf>

<sup>3</sup> <http://normativa.infocentre.es/sites/normativa.infocentre.es/files/noticias/20264206e.pdf>

<sup>4</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-20555>

<sup>5</sup> <https://www.boe.es/buscar/pdf/2016/BOE-A-2016-8346-consolidado.pdf>